

♡ Hitzontzi ♡

Deabruaren hiru ile urrezko

(Grimm anaiek jasotako ipuin hura, aldaera librea, beldurgabea, eguneroko beldur txikientzat)

RAI BUENO

Beldur da kontalaria. Ahoz kontatzen duena idatzitako hitzetan jarriko ote duen eskatu baitiote. Egunero bizi dituen beldur txiki andana horretatik, berri bat, ezezaguna, txori txiki beltz baten moduan, pausatu zaio barruan. Ahozkaturako hitzen oihartzunak, galdu baino lehenago entzulearen begi nini putzuetan sortutako uhinak ditu kontalariak gogoan. Orduan galdera bat sortu zaio: eta idatzitako hitzak, iraungo dutenak, nora doaz paperaren zuritasunean preso? Txori txiki beltzak zorrotz begiratzen du. Beldur da kontalaria eta hala ere teklatuko teklak zanpatzen ditu banan-banan, letrak uztartuz eta hitzak ukitu ezin duen paper batera kateatuz.



Noizbait eta nonbait galdutako herri batean, jaio zen jaio, eskuetan ogi opil txuri zekarren umea. Herriko andrarik zaharrena deitu zuten. Lurra bezain zaharra, emakume hura jaio berriaren etxean sartu, sehaskara hurbildu eta umetxoak eskuetan doi-doi eusten zuen ogi opila ikusi zuenean hala mintzatu zen: «*Muttiko honek, egiten duena egiten duela, inoiz ez du inon beldurrik izango. Den-dena ongi suertatuko zaio. Zorionaren semea da bera*». Hautxoak begiak zabaldu zituen.



Haren begiradan distira berezia, ñabarra sortu zen. Andrak orduan, umearen begiradaren argitasunean galduta jarraiki zuen esanez: «*Are gehiago, 14 urte betetzen dituenean erregearen alabarekin ezkonduko da eta orduan, erregearen errege egunak zenbatuak izango dira*».

Jende xeheak ez zuen gogokoa ez, errege zikoitz eta maltzur hura. Herriz herri ibiltzen zen, mozorroan mozorro, jendeak bere aginteari buruz edo eta errege sendiari buruz ahotan zer ibiltzen zuen jakin nahian. Mozorroan mozorro, izan zitekeen erregea praille. Mozorroan mozorro, izan zitekeen erregea tunante. Mozorroan mozorro, erregeak belarriak beti tente-tente.

Heldu zen bada herri hartara noizbait eta, mozorroan mozorro, galdetu zuen: «*Herrian zein berri?*». Kontatu zioten bada, kontatu, ogi opil txuria esku artean zuela sortutako jaiio berriarena. Kontatu zioten kontatu, herriko atsorik zaharrena iragarritakoa. Mozorroan mozorro, erregea arrantzale edo eta ikazkin; mozorroan mozorro, erregeak beti den-dena jakin. Eta jakin, bazekien atso zaharren iragarpenekin kontuz ibili beharra zeukala eta beraz jakin, bazekien lehenbailehen denborari aurre hartu behar ziola.

Merkatari moduan, mozorroan mozorro atean jo zuen erregeak. Zaldiaren gainetik kutxa bat eskuetan hartzen zuela, atea zabaldu zioten. Ongi nahiaz beterik hala galdetu zuen: «*Hemen jaiio al da eskuetan ogi opil txuria ekarri duen umea?*». Etxola barrura pasarazi zuten. «*Hemen*

jaiio da beraz inoiz inon beldurrik izango ez duen umea!». Sehaskara hurbildu zen esanez: «*Non dago zorionaren semea? Non dago 14 urterekin erregearen alabarekin ezkonduko den umea?*». Kutxa utzita, mutikoari begira, esku arteko opilari begira gelditu zen. Amaren baimenarekin jaioberria besoetan hartu zuen. Mutikoak orduan begiak zabaldu zituen eta erregeak, mozorroan mozorro, ezin begi haien distirari eutsi, gurasoengana zuzendu zen esanez: «*Zuen haur honek, zorionaren semeak, etxe hobea merezi luke. Uztazue nire eskuetan, ez du deusik ere faltan izango!*».

Gurasoek elkari begiratu, eta negar isilean, aita hala mintzatu zen: «*Gure seme honek inoiz, inon beldurrik izango ez badu, egiten duena egiten duela, den-dena ongi suertatuko bazaio, eramantzazu!*». Erregeak kutxa zabaldu eta mutikoa barrenean sartu zuen amak saminez kantatzen zuela:

Ogi opil xuria
Dakarzu zuk haurra
Bada zure begitan
Distira ñabarra.

Kanpoan da bizitza
Hura da bakarra
Ez dezazula izan
Sekulan beldurra.

Etxolatik irten, zaldian igo eta abidan erregeak herritik alde egin zuen.

Heldu zen zaldiz urrun, heldu zen urrun trostan, heldu zen takarran-takarran zubi baten erdira. Zubiaren azpitik ur biziak, goiti-beheti mendian behera. Erregeak kutxa eskuetan hartu eta madarikatu zuen: «*Madarikatua izan bedi esku artean ogi opila ekarri duen umea, madarikatua hari iragarritako suertea!!*». Kutxa uretara jaurti zuen esanez: «*Bukatu dira betirako iragarpenak!!!*». Urak, ur biziak, goiti-beheti. Kutxa haiekin batera ur-jauzitan barrena, behera. Behera eta behera zurrumbilotan, harkaitzen artean behera eta behera, urrunean, erregearen begirada luzean desagertu zen arte.

Munduan beste asko bezala, ibaiaren ertzean bazen errota zahar bat. Bertako errotariak, senar-emazteak, bikote umila zen oso. Seme-alabarik ez zuena. Horregatik gauero otoitzetan gauza bakarra eskatzen zuten: «*Aitarene eta semearene eta izpiritu santuarene izenean, bidali iezaguzu seme bat arren, amen!!*».


Errotak, tak-tak lanean tak, errotak. Goiz batez, errota-harria ibaiko urak burrunban bultzatuta tak-tak lanean, tak-tak ari zela, bat-batean

tak, gelditu zen. Errotaria ibaiko uraren sarbidea libratzera abiatu zenean, han aurkitu zituen harri, enbor, adar eta hosto. Baina haien guztien artean trabaturik, bazen kutxa bat, egurrezkoa. Hura adarren artetik atera zuenean, ura burrunban sartu eta errotak tak-tak, lanean tak-tak-tak...

Errotariak kutxak zer gordeko ote zuenaren jakin minez, tapa altxatu zuen. Barrenean ogi opila eskuetan, lo zegoen mutikoa ikusi zuenean, andrearengana egin zuen korri eta garrasi: «*Miraria, Mirari!!, Miraria, Mirari!!*». Emazteak tapa ireki eta orduan mutikoak bere begiak zabaldu zituen. Begirada ñabarrak zoriona ekarri zien bihotz zokora. Hargatik izenez, Zorion jarri zioten. Gau hartan, «*Aitarene, semearene eta izpiritu santuarene izenean, mila esker zuri, amen!*».

Urteek aurrera jo zuten bata bestearen atzetik. Hamar eta lau, hamalau. Zorion amets ederrez betetako hamalau urtetako gaztean loratu zen. Hamalau urte beldurra zer zen jakin gabe. Guztiek estimatzen zuten zorioneko gazte hura, guztiek maitatzen. Hain zen prestua, hain zen bihotz onekoa.





Gau batez, ilunak ekarri zuen ekaitza. Ekaitzak tximista eta trumoi, izugarrizko euri-jasa, euri-kolpe. Gau hartan errotako atean hiru ilun kolpe. TAUM-TAUM-TAUM!!! Errotariak ohean sarturik, beldurturik: «Aitaren, semearen eta izpiritu santuaren...». Zorion gazteak beldurrik ez. Atera hurbildu zen. Atean beste hiru ilun kolpe. TAUM-TAUM-TAUM!!! Atea zabaldu zuen. Atearen beste aldean gau iluna, ekaitza izugarria eta euripean gizon bat, mozorroan mozorro, erregea. Baina gau beltz hartan erregea errege moduan mintzatu zen: «Erresuma honetako erregea naiz, baita errota honen jabe. Bertako jakirik onenak afaldu eta bertako ohantzerik onenean izango dut atsedena!!». Barrenera sartu eta afariaren zain mahaiaren eseri zen.

Ri eta rau, rau eta ri, errotariak sukaldari.

Ri eta rau, rau eta ri, Zorion gaztea zerbitzari.

Rau eta ri, ri eta rau, erregeak mahai gainean hiru botila arda.

Rau eta ri, ri eta rau, erregearentzat mahai gainean jaki aski goxoak, hamalau.

Zorion sukaldera joan, sukaldetik etorri. Zorionek jangelara eraman, jangelara ekarri. Hainbeste jaki, hainbeste joan eta etorri. Hainbeste eraman eta ekarri, ezaguna egin bide zitzaion gaztearen begirada erregeari.

Afalostean, erregeak errotariei hala galdetu zien: «Zuen semea al da gazte hori?».

—Bai!! —erantzun zuten.

—... Beno, ez... —aitortu zuen aitak—, orain dela 14 urte ibaiak kutxa baten barruan eskaini zigun...

—Orain dela zenbat urte?—oldartu zen erregea.

Burua makur biek: «14 urte Jauna».

Erregeak orduan buruan nahasian, milaka irudi. Baina haien artean argi eta garbi eskuetan ogi opil txuria zeukan jaioberriaren begirada eta harekin batera ahoz aho ibilitako iragarpen hura, alegia: «14 urtekin erregearen alabarekin ezkonduko da!».

Buruan dantza nahasian zituen irudi, hitz eta ideia zurrumbilo haien artean, argia ekarri ziona nagusitu zen eta gurasoei hala galdetu: «Zuen seme prestu honek, eramango al lioke nire mezu bat erregeinari?». Errotariak marmarrean: «Aitaren eta semearen...».

Zorinek gau beltzari beldurrik ez eta bere fardeltxo prestatzen zuela, erregeak luma, tinta eta pergamina hartuz, erregearentzat mezua idatzi zuen:

«NIRE MEZU HAU ZURE ESKUETAN UZTEN DUEN GAZTEA SEGITUAN HIL EZAZUE. BURUA MOZTUTA, GORPUTZA ETA BURUA BANATURIK LURPERATU EZAZUE SAKON. GUZTI HAU NIRE ITZULERA BAINO LEHENAGO BETE DADILA AGINTZEN DUT».

Erregeak pergamina bildu, lokarri gorritz lotu, larruzko zorro batean sartu eta gaztearen leptotik zintzilikatuta kolkoan gorde zion esanez: «Nire mezulari, emaiozu eskutik-eskura erregeinari!».

Zorion gaztea makila eskuan, abiatu zen gau ilunean, gau izugarrian. Abiatu zen beldurrik gabe, abiatu zen ibilian. Eta ibilian ibiliz, ibili zen ilargi argirik gabe, ibili zen noraezean, basoaren erdian galdu arte. Urrunean argi dir-dir bat ikusi zuen. Nekez harantz jo zuen. Izei ilun luzeen artean egurrezko txabola. Atean jo zuen. Nekez jo,

nekatuta baitzegoen oso. Andrezko batek zabaldu zion atea, ikara aurpegi zurbilean.

—*Nondik zatoz eta nora zoaz?*—galdetu zion gazteari ahots meheaz.

—*Urruneko errotatik nator eta errege-erregina-
ren gaztelura noa erregearen mezu bat erreginaren
eskuetan uztera. Baina akiturik, ezin gau honetan
aurrerago egin. Arren emaidazu ostatu!*

Andreak alde batera, zein bestera begiratu: «*Alde egizu hemendik laster! Hau bidelapurren etxea da, bertan zaudela jakinez gero, aterako dizkizute begiak eta sutan erreko bizirik!*».

—*Datorrela, etortzear dagoena. Ez naiz beldur!!*—erantzun zion begiak zabal, bihotza lasai, Zorion gazteak. Andrak, aurpegi zurbildunak, bere begi txiki izutuak gaztearen begien soseguan pausatu zituen. Une batez gorputzaren hotz zurruna desagertu eta segurtasuna sentitu zuen. Barrena pasarazi zuen. Esne zopak hartu eta suaren ondoan, sutondoan Zorion gelditu zen lo. Loak eraman, eta ametsek urruneko kantua ekarri:

Ogi opil xuria
Dakarzu zuk haurra
Bada zure begitan
Distira ñabarra.

Kanpoan da bizitza
Hura da bakarra
Ez dezazula izan
Sekulan beldurra.


Gauerdian bidelapurrak heldu ziren. Zortzi bidelapur. Zortziak ala zortziak beldurgarriak, krudelak eta bihotz-gabekoak. Zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak. Heldu ziren builaka eta zalapartaka: «*Afaldu nahi diagu!!; Bapo afaldu!!*». Txabola barrenera sartu, mahai luzean eseri eta behin eta berriro zortziak oihiu: «*Afaldu nahi diagu!!; Bapo afaldu!! Afaldu nahi diagu!!; Bapo afaldu!!*». Andre aurpegi zurbilak, sutondoan kokildurik, ikara aurpegian, gorpu-

tzarekin Zorion gaztearen gorputza ezkututzen. Bat-batean bidelapurren artean buru zenak beste guztiak isilarazi eta andrari galdetu: «*Zer dun hor atzean ezkututzen dunana?*». Andreak zortzi begi zorrotz sentitu zituen iltzatuak eta kupidarik gabeko beste zortzi iluntasunean, han-hemenka sakabanatuak. Totelka hitz egiten hasi zen: «*Gazte koitadu bat baino ez da, erregearen mezularia. Erreginentzat mezu bat darama...*». Oldartu ziren ero bidelapurrak, nagusia ez beste: «*Begiak atera eta erreko diagu sutan bizirik!!*». Buruzagiak isilarazi eta eserarazi zituen guztiak. Orduan, eserlekutik altxatu eta gaztearengana hurbildu zen, kolkoan gordeta zuen larruzko zorrotik mezua atera eta atzera mahaian eseri zen. Lokarri gorria askatu, pergaminoa zabaldu eta erregearen mezua ozenki irakurri zuen:

«NIRE MEZU HAU ZURE ESQUETAN UZTEN DUEN GAZTEA SEGITUAN HIL EZAZUE. BURUA MOZTUTA, GORPUTZA ETA BURUA BANATURIK LURPERATU EZAZUE SAKON. GUZTI HAU NIRE ITZULERA BAINO LEHENAGO BETE DADILA AGINTZEN DUT».

Zortzi bidelapurrak, zortziak ala zortziak beldurgarriak, krudelak eta bihotz-gabekoak, zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak, isil-isilik gelditu ziren. Zortziak zur, zortziak lur.





Zortziak zur eta lur. Suaren dantza eta sutondoan lo zegoen gaztearen arnasa sakona baino ez zen entzuten.

Zutitu eta sutondora hurbilduta, bidelapurren buru zenak sutara bota zuen erregearen mezua. Mahaian eseriz pergamino, luma eta tinta eskatuz mezu berri bat idazten hasi zen:

«NIRE MEZU HAU ZURE ESKUETAN UZTEN DUEN GAZTEA SEGITUAN GURE ALABAREKIN EZKONDU EZAZUE. OSPAKIZUNAK HIRU EGUNETAN LUZA DITEZELA ETA GUZTI HAU NIRE ITZULERA BAINO LEHENAGO BETE DADILA AGINTZEN DUT».

Pergaminoa bildu, lokarri gorriaz lotu, larruzko zorroan sartu eta berriro ere lo zegoen gaztearen lepotik zintzilik, haren kolkoan gorde zuen. Orduan bidelapurrek, zortziak ala zortziak, beldurgarriak, krudelak eta bihotz-gabekoak, zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak dantza egin zuten, dantza isil-isilik gaztea esna

ez zedin. Andreak beldurrak uxatuta, lehenengo aldiz etxe hartan irrifar egin zuen.

Hurrengo goizean bidelapurrek, zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak, erregearen gaztelurako biderik laburrena zein zen adierazi zioten. Zortziak ala zortziak despeditu: «Adio eta ikusi artio!». Zortziak ala zortziak ez hain beldurgarriak, ez hain krudelak, ez hain bihotz-gabekoak.

Bide laburrena hartuta, aisa iritsi zen Zorion gaztea gaztelura. Erreginarengana eraman zuten eta eskutik-eskura eman zion ustez erregearen mezua. Erreginak mezua irakurri zuen. Ondoren bere burua altxatu zuen. Une hartan gelako atea zabaldu eta eguzkiaren pare errege-erreginaren alaba sartu zen. Zorion gazteak burua aterantz jiratu eta orduan, gazte bien begiradak gurutzatu zirenean, isiltasunean, munduko hitz guztiak, zahar eta berriak sobera ziren. Elkarrekin maitemindu ziren.

Hurrengo goizean ezkondu eta eztei ospakizunak, mezuak esan bezala hiru egunetan luzatu ziren. Asko eta asko izan ziren bertaratu zirenak. Andre zein gizonezko, fraile zein artisau, soldadu zein tunante, aberats zein pobre, ehundaka gonbidatu, baita milaka ere. Eta guzti haien artean gonbidatuak ez zirenak ere bai, artean zortzi gizon zarpai, zortzi zarpaiondo, zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak.

Hirugarren egunaren azken argitan, erregea gaztelura itzuli zen. Hango musikak, hango festak ikusitakoan, ezin ulertu han zer gertatzen zen. Geroago alabaren ezkontzaren berri eman ziotenean, ezin sinistu nahi bere belarriek eta begiek aditzera ematen ziotena.

—*Madarikatua ogi opil txuria esku artean ekarri zuen umea, madarikatua hari iragarritako suertea eta madarikatuak zuek guztiak!!! Nork agindu du horrelakorik?*—lehertu zitzaizkion erregeari barrenak.

Erreginak mezua erakutsi zion. Mezu hura irakurrita, erregeari heste barrena sumendi egin zitzaion eta handik hitzak eta sentimenduak estu eztarrarian gora, marrantatuak, suzko herensuge baten antzera, Zorion gazteari zuzendu zizkion esanez: «*Nire alaba desiratzen duenak, nahi eta nahi ez, infernuko deabruaren hiru ile urrezko ekarri beharko dizkit!!!*».

—*Ez naiz beldur*—erantzun zion gazteak,—*ekarriko dizkizut.*

Zorionek bere fardeltxo prestatu zuen. Emaztearen begietara begiratuz esan zion: «*Ez izan beldurrik. Gogotik maite zaitut!*». Besoen artean bero, elkar hartu zuten. Begiak itxi zituzten eta arnas bakarrean, Zorion gaztearen bihotz zokotik zetorren kantua entzun zuten.

Ogi opil xuria
Dakarzu zuk haurra
Bada zure begitan
Dizdira ñabarra.

Kanpoan da bizitza
Hura da bakarra
Ez dezazula izan
Sekulan beldurra.

Makila eskuan hartuta, Zorion partitu zen. Ibilian ibiliz, oinek eramaten zuten norabidean ibiliz, mendi eta mendi zerrak gurutzatuz, iritsi zen harresi batez inguratutako hiri batetara. Hiriaren sarreran zeuden soldaduek esan zioten: «*Alto!!*». Galdetu zioten: «*Gazte, zertan zara aditua?*». Zorionek apalki erantzun: «*Gauza orotan izan naiteke aditua*». Soldaduek serio: «*Orduan esaiguzu, bada gure hirian orain dela gutxi arte ardoa isuri duen iturria. Egun, ez ardorik, ez eta urik ere ez, zergatik?*». Zorionek zintzoki, hala agindu zien: «*Bidaia luzea dut aurrean, baina erantzuna ekarriko bueltan!!*». Soldaduek pasatzen utzi zuten.





Ibilian ibiliz, oinek eramaten zuten norabidean ibiliz, baso eta oihanak gurutzatuz, iritsi zen harrisi batez inguratutako beste hiri batera. Hiriarren sarreran zeuden soldaduek esan zioten: «Alto!!». Galdetu zioten: «Gazte, zertan zara aditua?». Zorionek apalki erantzun: «Gauza orotan izan naiteke aditua». Soldaduek serio: «Orduan esaiguzu, bada gure hirian orain dela gutxi arte urrezko sagarrak eman dituen sagarrondo. Aurten, berriz, urrezko sagarrak ez, ez eta historik ere, zergatik?». Zorionek zintzoki, hala agindu zien: «Bidai luzea dut aurrean, baina erantzuna ekarriko bueltan!». Soldaduek pasatzen utzi zuten.

Ibilian ibiliz, oinek eramaten zuten norabidean ibiliz, iritsi zen iritsi ur handi, ibai zabal-zabal batera. Urertzeko txalupa luze eta estuan erreparatu zuen. Txaluparen barrenean eserita gizon bat etsiturik, esku artean arrauna eutsirik.

—*Pasatuko al nauzu beste ertzerara arren?*—galdetu zuen gazteak.

Buruarekin baietz ziola: «*Horixe da nire lana tamalez*»—erantzun zuen gizonak. Zorion txalupan sartu eta gizona arraunean hasi zen. Ibaiaren erdialdean, gizonak kexu, hala galdetu zion: «*Bi-*

*zitza guztia daramat txalupa, arraun honi lotuta, ez al da sekulan nire lanean inor ordezkatzera etorriko?». Zorionek erantzun: «*Bidaia luzea dut aurrean, baina erantzuna ekarriko bueltan!*».*

Heldu ziren noizbait ibai zabal-zabal haren beste ertzerara. Han infernua hasten zen. Han dena dena zen laino, behe-laino. Han dena dena zen lurrun sufrezko. Han dena dena zen makur eta pendiza. Han dena dena zen orro, auhen eta intziri. Han dena dena zen amildegia. Atzera begiratu gabe, Zorionek aurrera egin zuen deabruaren etxera iritsi arte. Barrena pasa zen. Deabrua ez zen etxean, baina bai bere amona. Harri-beltzezko besaulkian eserita, aurrez aurre sutan zuen pertzari begira. Pertzan bor-bor idi oso bat irakiten. Begia handik kendu gabe amonak hitz egin zuen: «*Hobe duk hemendik alde egitea. Txerren iristear zegoak, gosez! Hemen aurkitzen bahau, hireak egin dik!*».

—*Barka, baina esposatu berri naiz eta nire emaztearen aitak, gure erresumako erregea denak, bere alabarekin bizi nahi badut, ezinbestean deabruaren hiru ile urrezko eramane behar dizkiodala agindu dit. Barka nire ausardia baina lagunduko al zenidake?*

Deabruaren amonak burua biratu zuen Zorion gaztearen begiekin topo egin arte. Amonaren begirada harrizkoa, gaztearen begiradaren epela sentitzerakoan leundu zen, negar malkotan busti eta esan zuen: «*Hire begiradak garbi eta zintzo mintzatzan haizela esaten dik. Lagunduko haut.*».

Deabruaren amonak bere eskuak jaso eta haren atzamar luze, hezur huts baino ez zirenak gaztearen buruaren gainean jarri zituen. Zorion gazteak berriro ere hitz egin zuen: «*Infernurako bidean hiru kontu, hiru misterioen berri izan dut. Urruneko hiri batean bada orain dela gutxi arte ardoa isuri duen iturria, baina orain ez ardorik, ez eta urik ere. Eta beste hiri batetan berriz, bada urrezko sagarrak ematen dituen sagarrondoa, azken urte honetan ordea, ez sagarrik, ez eta historik ere. Eta azkena hauxe, ibai handi batean bada gizon zahar bat bizitza guztia txalupa eta arraunari lotuta eman duena, ez al du inoiz ordezkorik izango? Bidean hiru kontu, hiru misterio. Ba al duzue hemen guzti honen zergatiaren berririk?».*

Amonak bere atzamar luze, hezur hutsezkoak gaztearen inguruan ibili zituen dantza beltzean, gaztearen gorputza amaraun ilunean bildu zuen arte. Gero putz egin eta Zorion txinaurri bihurtu zuen. Soinekoaren tolesduretan txinaurria gordez, amonak xuxurlatu zuen: «*Gazte, ondo errepara izezaiok Txerrenek dion guztiari!!!*».

Noizbait deabrua heldu zen. Txima luzeak, ilaje urrezkoa airean aske. Heldu zen hego haizearen moduan, bazter guztiak nahasiz, heldu zen usman esanez: «*Amaaatxiii!!!! Nor ibili dun gurean, nor?? Giza usaina zion hemen!!! Giza haragi usaina!! Nor amatxi, nor??*». Eta amonak erantzun: «*Gizaki usaina, sudurzuloetan sartuta daukak hik Txerren!! Haragi usaina duk, bai, baina idiarena Txerren!! Idia afaltzeko, idia saltsan!!!*».

Deabrua pertzera hurbildu, pertza sutatik jaso, ahoa zabaldu eta idia oso-osorik irentsi zuen adar eta guzti. Sabela berdindurik, tripa tokolo, burua amonaren magalean pausatu eta esan zion: «*Amatxi, zorriak kendu!*». Amonak atzamar luzeak

urrezko adatsean ibili zituen. Tripa tokolo-tokolo, buruan atzamarrak fereka-fereka, deabrua gelditu zen lo. Amonak orduan urrezko ile bat hartu eta indarrez tiratu zuen.

—*Amatxiii!!* —deabrua esnatu.

—*Barka, Txerren!* —esan zuen amonak— *amets gaizto bat izan diat.*

—*Zein amets amatxi?*

—*Bada... urruneko hiri bat eta, han, ardoa isuritzen duen iturria. Baina azken urte honetan ez ardorik, ez eta urik ere ez, zergaitik ote?*





—... Ahh!! Ez zekiten ez, badagoela iturri ondoko harri baten azpian apoa. Ez zekiten eta ezta jakingo ere! Baina hura zanpatu eta akatuz gero, ardo gozoa izango dituen!

Deabruak berriro ere burua amonaren magalean pausa. Amonaren hatzak, ilajea fereka-fereka, tripa tokolo-tokolo, deabrua lo. Amonak bigarren ilea hartu eta indarrez tira.

—Amatxi!!!!!! —berriro ere deabrua esnatu.

—Barka, Txerren! —berriro amonak—, beste amets gaizto bat!

—Zein amets, amatxi?

—Bada..., urruneko hiri bat eta han urrezko sagarrak ematen dituen sagarrondo. Baina azken

urte honetan ez sagarrik ez eta historik ere ez, zergatik ote?

—... Ahh!! Ez zekiten ez, badagoela sustraietan sagua. Ez zekitek eta ezta jakingo ere! Baina hura kazka, akatuz gero, urrezko sagar ederrak izango dizkiten!

Deabruak berriro ere burua amonaren magalean pausa. Amonaren hatzak, ilajea fereka-fereka, tripa tokolo-tokolo, deabrua lo. Amonak hirugarren ilea hartu eta indarrez tira.

—Amatxi!!!!!!

—Barka, Txerren, beste amets gaizto bat!

—Zer dun oraingo honetan, amatxi?

—Bada..., ibai zabal batean gizon zahar bat bere txalupa eta arraunari lotua. Noiz arte baina?

—... Ahhh!! Ez zekin ez! Ezta jakingo ere!! Baina bidaztiaren eskuetan arrauna utziz gero, betirako libratuko dun!!

Fereka-fereka, tokolo-tokolo, deabrua lo.

Hurrengo goizean deabruak alde egin zuen, heldu bezala alde egin, haize hego, ero. Deabruaren amonak soinekoaren tolesdura artetik txinaurria atera eta eskuin esku ahurrean zuela, putz eginez bihurtu zuen atzera berriro ere Zorion. Bihurtu zuen gizon. Amonak hiru ile urrezkoak luzatu zizkion esanez: «Ondo erreparatu al diok Txerrenek esandako guztiari?». Zorionek ileak larruzko zorroan, kolkoan gorde eta eskerrak emanez eman zion musuan musu.

Abiatu zen, bada, deabruaren etxea utzita, itzulera bidean. Eta infernuko bide amaigabeak bueltan ibili zituenean, txalupan gizona zain zuela aurkitu zuen. Honek zorretan utzitako erantzuna eskatu. Zorionek jarri zion kondizio: «Oinak beste ertzean jarritakoan emango dizut agindutakoaren berri». Pasa ziren bada ur handi, zabal haren beste aldera. Zorion txalupatik atera eta hala esan zion: «Arrauna hurrengo bidaztiaren eskuetan utziko bazenu, betirako libre zinateke!».

Txaluparia atzean utzita, ibili zen, itzulian ibili, hiriaren atarian zain zituena soldaduek ordainetan utzitako erantzuna eskatu zioten arte. Zorionek

erantzun: «Zoazte eta sagarrondoaren sustraietan dagoen sagua akatu ezazue!». Joan ziren, harrapatu eta kazka akatu. Sagarrondoak sagar urrezkoak, eder askoak eman zituen oparo. Hiriko alkatea esker onekoa izaki, eta lau mando urrez zamatua eman zizkion opari.

Sagarrondoa atzean utzita, ibili zen, itzulian ibili, lehenengo hiriaren atarian zain zituen soldaduek ordainetan utzitako erantzuna eskatu zioten arte. Zorionek erantzun: «Zoazte iturrira eta hango harri baten azpian dagoen apoa akatu ezazue!». Joan ziren, harrapatu eta zanpa-zanpatu. Iturriak ardo gozoa, freskagarri eman zuen ugari. Hiriko alkatea esker onekoa izaki, eta honek ere lau mando urrez zamatua eman zizkion opari.

Iturria atzean utzita, ibili zen, itzulian gaztelura itzuli, atzean zortzi mando urrez zamatua zituela, zortziak ala zortziak hanka-motzak eta begi-okerrak. Gazteluan emaztea eta erregea zituen zain. Lehenengoari eman zion ezpainen zorioneko musua, bigarrenari deabruaren hiru ile urrezkoak. Erregeak zeken, urrezko ileei baino, Zorionen atzetik zetozen zortzi mandoei erreparatu zien. Hanka-motzak, begi-okerrak, bai, baina zortziak ala zortziak urrez zamatua. Zikoizkeriaz, faltsukeriaz betetako bere begirada hura ezin mozturirik galdetu zuen: «Ene seme maitia, nondik ekarri duzu urre hau guztia?». Zorionek erantzun: «Jauna, zure begiez ikusi izan bazenitu ibai zabal-zabal haren beste aldeko bazterrak!!».

—Arren, kontaidazu seme, zer zen han bada??

—Sinestezina litzaizuke Jauna, baina jakin ezazu ibai haren beste aldeko hondartzak urrezkoak dituzula!!!

—Urre hondarra???

—Bai, Jauna, urre purua!!!

—Eta bertara joanda, seme, esaidazu, nahi dudan haina har nezakeen?

—Nahi haina eta oraindik gehiago, Jauna.

—Baina, seme, ibai zabala izanik, nola pasa beste aldera?

—Urrezko hondartzetara pasa ahal izateko bada txalupari zahar bat!

—Abiatuko naiz bada, denbora galtzeke!

—Urrea zain duzu, zoaz Jauna!

Eta erregea partitu zen eta noizbait iritsi. Eta txalupan sartu. Eta urre minez, txaluparia akuilatu zuen: «Azkarrago alper hori, azkarrago!!». Eta txalupariak isilik arrauna eskaini zion. Eta erregeak urreminaren minez arrauna eskuetan hartu zuen.



Eta orduz geroztik errege hura han dago, txalupa hartan, arraun hari lotuta, ibai zabal-zabal haren alde batetik bestera, joan-etorri amaigabeen, betirako, lurraren azken egunak iritsiko badira, haiek iritsi arte.

Eta erregea han zela, Zorion eta bere emaztea noski, zoriontsu bizi izan ziren luze. Eta zoriontsu bizi izan zirenez, noizbait beldurrik gabe eta bakean hil ziren.

Azken hitzak osatuz, inguruan begirada zorrotzik ez dela konturatu da kontalaria. Txori beltzaren itzalik ez da. Arakatu du bere barnea eta ezagutzen dituen ohiko beldurren artean (itxura zahar-berrituan: «jendeari gustatuko al zaio?». «Zer esango ote dute adituek?») luma bat aurkitu du. Kolore ederretakoa. Begirada jaso eta han ikusi du txoria hegaka.

